

6 – LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA DESKRIPZIOA

1. PLAN KOMENIGARRIA ETA APROPOSA: JUSTIFIKAZIOA

Ikusi bezala, oinarri eolikoa duen energia elektrikoa erabili egiten da. Duela urte gutxi, lehen mailako energiaren zati txiki bat besterik ez zen, eta gaur egun, zenbait eskualdetako —eta herrialde osoetako— energia portzentaje esanguratsua lortzen da haizeari esker.

Gaur egungo teknologiak bide ematen du potentzia handiko eta funtzionamendu fidagarriko makinak eraikitzeko. Makina horiek leku egokian jarrita, indar handiko parke eolikoak antola daitezke; eta parke horiek, aldi berean, energia kantitate esanguratsua sor dezakete, ekonomikoki errentagarria den energia. Parke horiek ezartzearekin bat, halaber, gas isurketak gutxitu egiten dira; gas horiek negutegi efektuaren eta klima aldaketaren eragile dira.

Euskadin parke eolikoak jartzea justifikatuta dago, kontuan hartzen badira, ez bakarrik, energia eolikoaren egoera eta energia horrek dituen abantaila energetiko, sozioekonomiko eta ingurumenekoak, baita energiaren lurralde eta sektore plangintza ere. Plangintza horren helburuak dira energia berriztagarriak ahal bezainbat aprobetxatzea, energia autohornikuntza tasa igotzea, hornitze iturriak dibertsifikatzea eta energia garbiak erabiltzea (kutsatzaileen isurketa atmosferiko orokorrak eta zehatzak gutxitzeko). Gainera, parke eolikoak jartzeak lagunduko du, batetik, energiarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten etorkizuneko helburuak, erronkak eta desafioak lortzen —helburu, erronka eta desafio horiek lurralde eta sektore plangintzan agertzen dira—; bestetik, sektore eolikoan produktuak eta zerbitzuak eskaintzen lan egiten duten Euskadiko industri enpresa asko garatzen; eta, azkenik, enplegua sortzen.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoan haizearen indarra aprobetxatzea laguntza handia izan daiteke:

- (a) CO₂ isurketak gutxitzeko; isurketa horiek dira negutegi efektuaren eta klima aldaketaren eragile nagusiak.
- (b) Errekin fosil erreserben agortzea moteltzeko, eta baliabide naturalak, zaintzearekin batera, modu orekatuan aprobetxatzeko.

-
- (c) Euskal Autonomia Erkidegoko energia autohornikuntza tasa igotzeko eta, ondorioz, kanpoarekiko menpekotasuna gutxitzeko. Hori funtsezko hobekuntza litzateke, energia sektorean oso garrantzitsua baita estrategia.
 - (d) Hornikuntza iturriak dibertsifikatzeko; horrekin batera, gainera, euskal energia sistemaren eraginkortasuna, segurtasuna eta lehiakortasuna hobetu egingo dira.
 - (e) Energia sortzen den gunea kontsumoguneetara gerturatzeko; izan ere, horrek askatasuna ematen du, eta energia zaintzen eta aurrezten lagundu ere bai. Gainera, era horretan, saihestu edo gutxitu egiten dira energia galera eta energia garraioak sortutako ingurumen inpaktuak.
 - (f) Euskal Autonomia Erkidegoan industria eolika behin betiko finkatzeko. Era horretan, teknologia garatu, lehiakortasuna gehitu, ekonomia hobetu eta lanpostuak sortzeko aukera egongo da. Kontuan hartu behar da parke eolikoak etengabeko aberastasun iturri direla.

Dena den, parke eolikoak ezartzeak eragin handia izan dezake Euskadiko lurretan, ingurumenean eta jartzen diren inguruan. Horregatik da tresna baliagarria Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala: jarraibideak eta irizpideak finkatzen ditu, bai administrazioarentzat, bai partikularrentzat, haizea aprobeztatze aldera kokaleku egokienak aukeratzeko (ikuspegi energetiko-ekonomikotik zein ingurumen ikuspegitik), eta, finean, parke eolikoak lurraldeari egokitzeko; betiere, LAletatik eratorritako antolamenduaren arabera.

2. ENERGIA EOLIKOAREN LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN EGITASMOAK ETA HELBURUAK

Lurralde Plan Sektorial honen egitasmoa da Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoak jartzeko kokaleku egokienak hautatzea, kontuan hartuta, batik bat, ingurumena.

Energia eolikoak hainbat aplikazio ditu, baina Aurrerapen honetan aintzat hartzen dira, soilik eta zehazki, lurraldean eragin esanguratsua izan dezaketenak; hau da, haizearen energia hartu, energia elektriko bihurtu eta energia hori banaketa sarera bidaltzeko helburua duten parke eolikoak. Parke eoliko horiek 8 aerosorgailu baino gehiagokoak izango dira, eta instalatutako potentzia 10MW baino handiagoa izango dute.

Beraz, mota horretakoak ez diren instalazio eolikoak LPSaren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira. Dena den, horiek gauzatzeko, instalazioei buruzko derrigorrezko industria-baimena beharko da, eta hala behar izanez gero, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ere bai; lurzoruari buruzko Legea errespetatu beharko dute, bestalde, ezarri nahi direnean. Hala, hirigintzaren ikuspegitik begiratuta, aurreko paragrafoan sartzen ez den parke eolikoren bat instalatu nahi izanez gero, lurzoru ez urbanizagarrian, hirigintza-plangintzak debekatzen ez duen zonetan, lizentzia lortu aurretik hirigintza-legerian aipatzen den administrazio-baimena lortu beharko da lurzoru-mota horietan ezarri nahi diren erabilera publikoko edo interes sozialeko instalazioentzat.

LPS honen helburu diren parke eolikoak, noski, nonbait kokatu behar dira. Kokaleku horretan, parke eolikoko haizearen indarrak aprobetxatzeko modukoa eta errentagarria izan behar du. Parkeak eragin ditzaken ingurumen inpaktuak, bestalde, eramangarriak izan behar dute, oro har.

Beraz, Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoan kokaleku eoliko egokienak identifikatu, hautatu eta lurralde antolamenduan integratzea; betiere, ikuspegi teknikoa hartuta kontuan.

Bestalde, kokaleku horiek antolamenduan onetsiko dira, baldin eta zona horretan aprobetxamendu eolikoa onartu eta susta daitekeen jarduera bada.

Euskal Autonomia Erkidegoarentzat oso garrantzitsua da azpiegitura sortzea, energia baliabide natural, berriztagarri eta autoktono horri etekina ateratzeko. Baina, gogoan hartu behar da eskuartean dugun sektore plangintza, beste edozein

plangintzaren moduan, lurralde antolamenduari buruzko politika globalaren barne egon behar duela, Lurralde Antolamendurako Euskadiko Legeko (LAEL) zioen azalpenetan adierazten den bezala. Hortaz, interesak koordinatzea beharrezkoa da, eta hori da Lurralde Plan Sektorial honen beste helburu nagusietako bat.

Behin interesak koordinatu eta ingurumena kontuan harturik, LPSaren helburu nagusia da parke eolikoaren instalazioa erraztea eta azpiegitura hori lurralde antolamenduan integratzea. Eta hori, 2005erako gutxienez honako hau erdiesteko: instalatutako 175 MW-eko potentzia izatea eta urtean jatorriko eolikodun 437.500 MWh ekoiztea. Horiek dira, izan ere, 3E-2005 Planaren, Euskadiko Estrategia Energetikoaren 2005erako aurreikuspenak.

Era guztietara, Planak behar bezainbat malgutasun izan behar du, eta dauka, ingurumen inpaktu kaltegarriarik egon ezean edo gizartearen gehiengoak parke eolikoak onesten baditu, Planeko helburuak gehitzea ahalbidetzeko edo 2005etik aurrera sor litezkeen egitasmo berriei bide egiteko.

Azkenik, gerta liteke sustatzaileek LPS honetan agertzen ez diren kokalekuak aukeratzea. Horregatik, LPSa, sektore eolikoaren txukun garatzeko tresna izateaz gain, bideratua dago jarraibide eta irizpideak ematera, LPSn agertzen ez diren kokalekuak aztertu eta balioesteko gida moduan erabiltzeko.

3. ENERGIA EOLIKOAREN LURRALDE PLANAREN DESKRIPZIOA

Bi irizpide hartu dira kontuan Lurralde Plan honen garrantzia zehazterakoan:

- 1) 3E-2005, Euskadiko Estrategia Energetikoa dokumentuan, eta baita Lurralde Antolamendurako lldoetan ere, argi ageri da Euskadiko energia baliabide apurrei ahalik eta etekin gehien ateratzeko beharra dagoela; izan ere, energia menpekotasuna handia da. Alabaina, energia hori aprobetxatzea ezinbesteko baldintza da, etorkizunean gure Erkidegoan lortu den bizi eta garapen kalitateari eusteko.
- 2) Behar horri erantzun behar zaio Euskadiko ingurumen kalitateak kalterik ez jasateko moduan. Ingurumena errespetatu egin behar da. Baina ingurumena ez da gizakia bizi den ingurua soilik, kosmos egokitu eta orekatu bat da; eta gizakiak kosmos horretan, beste edozein elementuren gisa, integratu behar du, bidean aztarna kaltegarririk utzi gabe.

Hori ikusita, LPSaren egitasmoa da EAEn parke eolikoak ezartzea, baliabide eolikia ahal bezainbat aprobetxatzeko moduan, baina ingurumena errespetatuz. Horretarako, gaur egungo teknologia kontuan hartuta, izan litezkeen kokalekuak edo kokaleku teorikoak direnetatik abiatu, eta parke eolikoak instalatzeko egokien irizitakoak hautatu dira, ikuspegi energetiko, ekonomiko eta ingurumenekoaren arabera.

Gainera, Planaren helburuak xehetasunez azaltzen dira, eta horrek ahalbidetuko du, aukerak aztertu eta alderatu ondoren, hautatutako kokalekuak behin betikoak izatea, eta zuzenean integratzea bai lurralde antolamenduan, bai udalerrietako hirigintza plangintzetan. Era horretan, parke eolikoak burutzeko modukoak eta erakargarriak izango dira sustatzaileentzat; parke eolikoek gaur egungo eta etorkizuneko helburu energetikoak betetzeko adina energia elektriko ekoiztuko dute.

Bestalde, LPS hau egiterakoan, batik bat kontuan hartu da parke eolikoek ingurumenean eta lurraldean izan dezaketen eragina. Eragin hori aukeratutako kokalekuen arabera izango da.

Horrela, bada, kokalekuak ondo aukeratzea erabaki garrantzitsua da, eta aukeraketa hori, ahal den neurrian, Lurralde Plan Sektorialaren bitartez antolatuko da.

Hori guztia ikusita, Lurralde Plan Sektorial honetan pauso hauek zehazten dira:

1) Haize baldintzak Euskadin

Hasteko, Euskadiko haize baldintza orokorrak eta zona eolikoak aztertzen dira.

2) Kokalekuak identifikatzea, balioztatzea eta hautatzea

a) Alderdi teknikoak, ekonomikoak eta energetikoak

i) Euskadiko gaitasun eolikoa

Fase honetan gaitasun eolikoa duten EAEko edo EAEn mugetako kokalekuak identifikatzen dira, alde batera utzita ingurumen baldintzak eta bideragarritasun teknikoa. Leku horiek *izan litezkeen kokalekuak* dira.

ii) Aprobetxa ezin den gaitasuna

Identifikatutako kokalekuen bideragarritasun teknikoa aztertzen da orain. Eta baztertu egiten dira, "haizea" ibili arren, instalazio teknikoa burutzeko zailtasunengatik, aprobetxamendu mugatua duten kokalekuak edo kokaleku zatiak.

Fase hau gainditzen duten kokalekuak *aprobetxa daitezkeen kokalekuak* dira.

b) Ingurumen alderdiak

i) Eraginak identifikatzea eta sailkatzea. Ingurumen arrazoiak direla eta, kokalekuak baztertzea.

Zati honetan parke eolikoek ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzen dira eta, ondoren, kritiko edo onargarri bezala sailkatzen. Eragin kritikoak dira, neurri zuzentzaile edo antolatzaileak hartu ezean, LPSk jarritako muga gainditu eta ingurumenean inpaktu onartezina eragiten dutenak. Beraz, aztertu egiten da eragin kritikoak neurri zuzentzaileekin edo antolatzaileekin saihestu edo gutxitu daitezkeen ala ez. Eta ondoren, eragin kritikoak edo saihestezinak sortzen diren kokalekuak edo kokaleku zatiak baztertu egiten dira.

Aldiz, eragin onargarriak balioztatzen dira eta beste kokalekuetakoekin alderatzen. Azkenik, bada beste eragin mota bat, LPSetik kanpo geratzen den arren, analisi tresna espezifikoak dituen.

c) Kokaleku onargarrien sailkapena

Atal honetan kokaleku onargarrien sailkapen bikoitza egiten da, kontuan hartuta zenbateraino diren egokiak kokalekuak teknikaren, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik.

i) Kokalekuak sailkatzea, ingurumenean duten eraginaren arabera. Berriz ere baztertzea, ingurumen arrazoiengatik

Eragin onargarriak balioztatzeko metodologia espezifikoa proposatu eta burutzen da eta, gero, balore bakar batean integratzen da.

Azken balorazioan, garrantzia gehien duten faktoreak "a priori" kalte gehien jasan dezaketenak dira (paisaia eta hegazti fauna).

Urrats honetan ikusten da kokaleku batzuk, onargarriak izanda ere, sortzen duten eragina gainontzekoena baino handiagoa dela. Hortaz, kokaleku onargarriek 3E-20005 Planean aurreikusitako helburu energetikoak gainditzen dituztenez, komeni da ingurumen inpaktua dela-eta gainontzekoen gainetik geratzen diren biak atzera botatzea.

ii) Kokalekuak sailkatzea, faktore energetiko-ekonomikoen arabera

Kokaleku onargarriak gaitasun energetiko-ekonomikoaren arabera sailkatzen dira. Bi faktore aztertzen dira: batetik, gaitasun eolikoa; bestetik, kokalekuaren ezaugarriak direla-eta instalazioak dituen kostuen eta elektrizitate ekoizpenaren inguruan aurreikusitakoaren arteko erlazioa.

iii) Kokalekuen sailkapen integratua

Fase honetan aurreko emaitza guztiak bateratzen dira. Sarrera bikoitzeko matrizea egiten da, kokalekuak sailkatzeko, gaitasun eolikoaren eta ingurumen eraginaren arabera.

Esan bezala, sarrera bikoitzeko matrize horretan kokalekuak sailkatuta eta taldekatuta egongo dira, faktore tekniko-ekonomikoen eta ingurumen eraginaren arabera. Horrela, kokaleku interesgarrienak, hau da, gaitasun ekonomiko-energetiko gehien eta ingurumen eragin gutxien dutenak taularen mutur batean egongo dira; interes energetiko gutxien eta ingurumen eragin gehien dutenak, berriz, kontrako muturrean; eta gainontzekoak bi mutur horien artean, nonbait.

Sailkapen integratu honen xedea, beraz, irizpideak eskaintzea da. Izan ere, jakin egin behar da zein diren haizeari etekina ateratzeko kokaleku edo proiektu egokienak, gerta bailiteke parke eolikoak instalatzeko potentzia proposamena, edo horien instalatutako gehiengo potentzia, eta beste edozein parametro onartutakoaz gainetik egotea.

3) Kokalekuen banaketa, bi multzoetan

Kokaleku onargarriak bi multzotan banatzen dira (Multzo I eta Multzo II). Pentsatzen da Multzo I-eko kokalekuetan parkeak ezarriz gero, Planaren helburu energetikoak erdietsiko direla, ingurumen-inpaktu txikienarekin. Hala, Multzo II-ko kokalekuetan parkeak baimenduko dira kokaleku horietara jo gabe helburu energetikoak erdietsi ezin direnean bakarrik.

3) Hautatutako kokalekuak. Burutzea.

Hautatutako kokalekuetan parke eolikoak jartzeko ezinbestekoa da, batetik, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak instalazio bakoitzaren proiektu teknikoak bideratzea eta onartzea eta, bestetik, EAEko Ingurumen organoak ingurumen ebaluazioa egitea.

4) LPSn aurreikusi gabeko kokalekuak.

LPS honetan onartutako instalazioen bat aurreikusi gabeko kokalekuan jartzekotan, aldaketak egin beharko dira.

5) Hirigintza Plangintza berria.

LPSn hautatutako kokalekuetan parke eolikoak eta parke horien laguntza elementuak edo osagaiak jartzea jarduera onargarria izango da, lurraren sailkapena edo kalifikazioa edozein dela ere; baina, betiere, LAletako inguru fisikoaren gaineko lldoan aurreikusitako antolamendu kategorien barne.

6) Eraginak, indarrean dagoen plangintzarengan

Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzeak eragina izango du hirigintza plangintzan, hautatutako kokalekuei dagokienez. Horrela, plangintza hori LPSeko erabakiei lotetsia egongo da, eta plangintza lehenbizikoz berrikustean edo aldatzean erabaki horietara egokitu beharko da.